

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Michel Curutchet

*Ezterenzubi,
Nafarroa
Beherea (1936)*

Aurkibidea



Biografia



Michel Ezterenzubi Bidartean sortu zen 1936an, anaia bikiarekin batera. Hiru hilabete zituztenetik 10 urtera arte, bi anaiak aitaren etxondoan haziak izan ziren (aitamak, bizitzeko, Ameriketara joanak zirelaketz). 1949an familia osoa (hirugarren anaia bat sortu zen bitartean Ameriketan) plantatu zen definitiboki Bidartean, amaren etxondoan. Michelek berak, zenbait urte berantago, aitaren segida hartu zuen. Laborantza eta artzaingoarekin batera, kontrabandak sos iturri estimagarria ekarriko zion.

Zintak

EZB-002

- **Proiektua:** Euskal kultur erakundearen artxiboak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lekumberri, Terexa
- **Data:** 2008-09-12
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Bizia Esterenzubin XX. mendearen lehen zatian

- **Erref:** EZB-002/001
- **Iraupena:** 0:10:47. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

1930. hamarkadan, ez zen errex familia baten biziaraztea Baigorri-Garazi aldeko herri menditsuenetan. Ezterenzubi Bidarteko bikote gazteak (gure informantearen burrasoak) Ameriketara joan behar izan zuen 1936an bere bi haur gazteak herrian utzirik. Familia ez da hamar urteren buruan baizik elgarretaratuko eta handik laster etxondoan berriz plantatuko laborantza-artzaintzaz bizitzeko.

2. Gerlak (1939-1945koa eta Algeriakoa)

- **Erref:** EZB-002/002
- **Iraupena:** 0:06:24. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Politika » Algeriako gerra (1954-1962)

Laburpena:

Beste euskaldun frango bezala, gazte gaztea (23 urte) joan zen Algeriako gerlara Michel Curutchet 1959an, eta han egon bi urtez. 1939-1945eko gerla denboran aldiz, oraindik haurra zen eta osaba-izebaren etxean bizi zen. Osabak jendeak pasatzen zituen mugaz bestalde eta deportazioan hil zen.

3. Kontrabandaren garrantzia tokiko bizian (1955-1992)

- **Erref:** EZB-002/003
- **Iraupena:** 0:06:10. **Hasi:** 00:17:11. **Bukatu:** 00:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Laburpena:

Michel Curutchetek dionaz, kontrabandan hasi denean, herri guzietan baziren guardiak. Ezterenzubiko postan, 5 guardia baziren. Muga handienak ziren Irupile, Errosate. Azken urteetan bereziki (1985-1992), azkar zen kontrabanda. Ezterenzubiko etxeen erdiak egiten zuken kontrabanda, nahiz ez zitaiken xuxen jakin.

4. Kabala kontrabanda (1955-1992)

- **Erref:** EZB-002/004
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:23:21. **Bukatu:** 00:27:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Laburpena:

Michel Curutchet-ek xerriak, ahatxeak eta behiak goiti eramaten zituen (bestaldera) eta zaldiak eta ardiak beheiti. 1985 artio, komertzio handiena zaldiekin eta ardiekin egin da. Michel Curutchet-ek kabalak « garantian » hartzen zituen, behar zen tokira eraman arte.

5. Kontrabanda : lanaren antolaketa eta baldintzak

- **Erref:** EZB-002/005
- **Iraupena:** 0:07:48. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Laburpena:

Michel Curutchet-ek 6-7 gizon enplegatzen zituen. Kabalak oinez pasatzen zirenean, 6-7 gizon behar ziren 24 zaldientzat, aldiz hiru aski ziren 120 ardientzat. Bide gudronatuari esker, garraioa kamioez egin da baina ez du honek peon beharra ttipitu (bidearen idekitzeko espioi asko behar zirelako). Ezterenzubitik Orbaizeta, Arnegi, Luzaide, Iriberrri, Garralda, Burgeteko mugetaraino eramaten zituzten kabalak. Mugan baino gehiago, merkatuan mintzatzen ziren kontrabandistak. Michel Curutchet harreman bereziagoa ukan du Orbaizetarekin.

6. Kontrabanda : mugaz gairdiko harremanak

- **Erref:** EZB-002/006
- **Iraupena:** 0:08:44. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:44:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Laburpena:

Ezterenzubitik Orbaizeta, Arnegi, Luzaide, Iriberrri, Garralda, Burgeteko mugetaraino eramaten zituzten kabalak. Mugan baino gehiago, merkatuan mintzatzen ziren kontrabandistak. Michel Curutchetek harreman berezia ukan du Orbaizetarekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com